

**ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA. AGIRI HONEK ARAUTUKO  
DU, DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAREN BABES  
PUBLIKOKO ETXEBIZITZA-ERAIKINEN GARBIKETA-ZERBITZUAK  
KONTRATATZEKO LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKI BIDEZ.**

## 1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honek xede du Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintzak kontratista bat aukeratzea. Kontratista horrek Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen **Karatularen 1. puntuan** (aurrerantzean, Karatula) adierazitako zerbitzuak emango ditu.

Zerbitzu horiek emango dira Agiri honen, Preskripzio Teknikoen Agiriaren eta kontratistaren proposamenaren arabera.

Loteetan banatuz kontratuaren zatiak modu independentean egitea aurreikusten den kasurako, **Karatularen 1. puntuan** honako datu hauek adieraziko dira: kontratua zein lote zehatzetan banatua dagoen; hala badagokio, lizitatzailerik bakar batek zenbat lotetarako aurkeztu dezakeen eskaintza; hala badagokio, lizitatzailerik bakoitzari esleitu ahal zaizkion lote kopurua; hala badagokio, eskaintza integratzaileak ea irismena aurkezteko aukera; kasu bakoitzean zehazten diren alderdiak.

Kontratuaren CPV kodea **Karatularen 1. puntuan** adierazten da.

## 2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratugilea Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza da (aurrerantzean, erakunde kontratugilea).

Kontratazio Organoa **Karatularen 2. puntuan** adierazten da eta, hala badagokio, eta ezar daitekeen zuzenbide pribatuko araei jarraituz, egokitzat jotzen dituen pertsonak izenda ditzake berariaz, kontratuarekin lotutako jarduera jakin batzuk gauzatzeko.

## 3. ESLEIPEN-PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko zaio kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzailerari, agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera (aurrerantzean, eskaintza onena).

## 4. ALDAERAK

Lizitatzailerik aldaerak aurkezteko aukera, hala dagokionean, **Karatularen 3. puntuan** ematen da jakitera.

Aldaerak onartzen badira, **Karatularen 3. puntuan** adierazten dira haien gutxieneko eskakizunak, modalitateak eta ezaugarriak, baita haiek kontratuaren xedearekin duten lotespina ere.

## 5. KONTRATUZKO DOKUMENTAZIOA

Esleipenaren ondoren formalizatzen den kontratuaz gain, kontratu-izaera edukiko dute dokumentu hauek:

- Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta bere Karatulak.
- Preskripzio Teknikoen Agiriak.
- Esleipendunak aurkezten duen eskaintzak.
- **Karatularen 4. puntuan** adierazten den beste edozein dokumentuk.

Esleipendunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko egintzan, guztiak onartzen dituenaren froga gisa.

## 6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena **Karatularen 5. puntuan** adierazten da.

## 7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

### 7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua **Karatularen 6.1 puntuan** adierazten da.

Bestalde, kontratuaren prezioa, halaber, **Karatularen 6.1 puntuan** zehazten da.

Kontratuaren prezio horrek bilduko ditu kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak; besteak beste —informazio gisa soilik eta ez modu mugatzailean—, honako hauek:

- Kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak, Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian adierazten denaren arabera. Ez da a posteriori onartuko alde zuzenetik azken prezioan barne hartu beharko liratekeen kontzeptuen ondoriozko fakturaziorik.
- Kontratuak berezkoak dituen kontzeptu guztiei dagozkienak eta hura egiteko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldatak eta Gizarte Segurantzaren oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jaiegunetan egiten diren lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak, etab.), baita zergak (BEZa kanpo), aseguruak, lizentziak, garraio eta joan-etorriko gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokor guztiak ere.
- Kontratua gauzatzeko kontratistak erabili behar dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipo, tresna, ekipo informatiko eta aparatu guztiak.
- Erakunde kontratugileak deitzen dituen lan- edo informazio-bilera guztietara joatea, kontratua behar bezala gauza dadin ahalbidetzeko.
- **Karatularen 6.1 puntuan** zerrendatutako beste edozein kontzeptu.

## 7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako antolamendu juridikora iraultzen dituen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 101. artikularen ondorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia **Karatularen 6.2. puntuan** adierazitako zenbatekoa izango da.

Balio zenbatetsi hori kalkulatzeko SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

Aurreikuspen horrek ez du konpromiso jakin bat sortzen erakunde kontratugilearentzat.

## 8. PREZIOA ORDAINTZEA

Kontratuaren prezioa hilero ordainduko da, kontratistak kasuan-kasuan dagokion faktura aurkeztu eta gero.

Astero edo hilero egingo den garbiketa-zerbitzuagatik kontratistari ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, kontratistak urte osorako eskainitako prezioa zati 12 egingo da.

Hiru hiletik behin egingo diren garbiketa-zerbitzuen zenbatekoa zerbitzu hori benetan eman duten hilabeteen ordainduko da.

Kontratistak kontzeptu bakoitzagatik hil osoko faktura xehatuan aurkeztu beharko du, zerbitzuak eman dituen hilabetea amaitzen denetik hasi eta hamabost egun naturaleko epean. Fakturarekin batera, hil horretako egikaritze-txostena aurkeztu beharko du. Bertan, denbora tarte horretan egindako lanak zehaztuko ditu. Dokumentu horiek guztiak erakunde kontratugileari ez aurkeztea, fakturak atzera botatzeko nahikoa arrazoia izango da, dokumentu horiek behar bezala osatu arte.

Ez betetze errudun edo arduragabe jarreraren ondorioz, edo Agiri honetan finkatutako betebeharrak ez betetze soilagatik instalazioetan eragiten diren kalte-galeren arduraduna enpresa esleipenduna izanik, eragindako kalte-galeren balioari dagokion kopurua ordaintzeko eskatzeaz gain, egin ez diren edo oker egin diren lanen zenbateko balioetsiari buruzko balorazioa egin ahal izango da. Kopuru hori dagokion hileko ziurtapenetik deskontatuko da, kalteengatik dagokion zigorra kontuan hartu gabe.

Erakunde kontratugileak dagokion hileko zenbatekoa ordainduko du 30 egun naturaleko epean, zerbitzuak eman dituen hila amaitzen denetik hasita; baldin eta adierazitako epean faktura igorri bada eta erakunde kontratugilearen oniritzia badago.

Ez da ordainduko agiri honen kontratu xedetik kanpo egindako lanik edo zerbitzurik, edo, hala badagokio, erakunde kontratugileak aldeztu aurretik eskatu ez duen lan edo zerbitzurik.

## 9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

**Karatularen 8. puntuan** xedatutakoa aplikatuko da.

## 10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratugilearen kontratugile-profilean argitaratuko dira:

- a) Lizitazioaren deialdiaren iragarkia.
- b) Kontratuaren esleipenaren iragarkia.
- c) Kontratuaren formalizazioaren iragarkia.
- d) SPKLaren 63. artikuluan adierazitako gainerako informazioa.

Erakunde kontratugileak, profil horretara sartzeko, honako web orri honetara jo beharko du:  
<http://www.contratacion.euskadi.eus>

Halaber, lizitazioaren deialdiaren iragarkia eta kontratuaren formalizazioaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Gainera, Agiri honen 30. Klausularen arabera Kontratazio Organoak adostutako kontratuaren aldaketa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, SPKLaren 207.3 artikuluan adierazitako baldintzetan.

## 11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatuzailea behartuta egongo da behin betiko berme bat eratzera **Karatularen 9. puntuan** adierazitako zenbatekoaz.

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatuzaileak egiaztatu beharko du adierazitako behin betiko bermea eratu duela 10 egun balioduneko epean, Kontratazio Organoak ondorio horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Aipatutako behin betiko bermeak SPKLaren 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzungo die.

Bermea eratu ahal izango da SPKLaren 108. artikuluan jasotako moduetako batean; eta ez da beharrezkoa izango hura Gordailu Kutxa Nagusian eratzea.

Abal moduan ezarriz gero, Agiri honi **I. eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren araberakoa izango da.

Bermea eratu izana bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahal izango da.

Bermearen ganean kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, kontratistak bermea berrezarri edo handitu beharko du –dagokion zenbatekoan–. Haiiek gauzatu eta hamabost egun balioduneko epea izango du. Hala egin ezean, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, kontratistak behin betiko bermea berregokitu beharko du, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Kontratistak hamabost egun naturaleko epea izango du bermea egokitzeko, aldaketa-erabakia jakinarazten den

datatik hasita.

Bermea Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme-epaia igaro ondoren eta kontratistak kontratuko betebeharrak guztiak bete dituztenean.

Bermea itzultzeko, erakunde kontratugileak aldeko txostena eman beharko du aurretiaz.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLaren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

## **12. KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeke inolako debekurik ez duten eta kaudimena egiaztatzen duten pertsona naturalek edo juridikoez, espainiarrek edo atzerrikoek, kontratatu ahal izango dute erakunde kontratugilearekin.

Lizitatuak, halaber, kontratuen xede diren zerbitzuak gauzatzeko eska daitezkeen gaikuntza profesionala edo enpresa-gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izateko, ezinbestekoa izango da kontratuaren zerbitzuak haien estatutuen edo eratze arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo esparruaren barruan egotea.

Erakunde kontratugilearekin kontratatzeke gaitasuna edukiko dute, nolahi ere, Europar Batasuneko kide diren estatuak enpresa ez-espainolek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten estatuak, betiere dagokien estatuko legeriaren arabera, kasu kasu zerbitzua egiteko gaikuntza badute. Kasu horretan, SPKLaren 67. artikuluan jasotakoa aplikatuko da.

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasu-kasu zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Nazioarteko hitzarmenen ondoriozko Espainiaren betebeharrak kalterik egin gabe, Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten estatuak ez diren pertsona fisikoek edo juridikoez txosten bidez egiaztatu beharko dute, atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela, era berean, Espainiako enpresen partaidetza kontratazioan, SPKLaren 3. artikuluan zerrendatutako sektore publikoko erakundeak parekariekin, funtsean antzekoa izango den moduan. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari erantsiko zaio.

Ez da aurkeztu beharko Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuak enpresen elkarrekotasunari buruzko txostena.

Erakunde kontratugilearekin kontratuak egin ditzakete, xede horrekin aldi baterako sortzen diren enpresari-elkarteek, eta ez dute eskritura publikorik formalizatu beharko, kontratuaren esleipena lortu arte. Edozein kasutan, SPKLaren 69. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

Lizitzaileek gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte **Karatularen 10. puntu** ezarritako kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen profesional edo teknikoari dagokienez.

Hala badagokio, **Karatularen 10. puntu** adierazitako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak, gutxiarik, atxikiko dira kontratua gauzatzeko.

Gainera, lizitzaileek bete beharko dituzte **Karatularen 10. puntu**, hala badagokio, adierazten diren berariazko eskakizunak.

Lizitzaileei kontratua gauzatzeko zenbait giza baliabide eta/edo baliabide material atxikitze konpromisoa eskatuz gero, konpromiso hori funtsezko kontratuzko betebeharra izango da SPKLaren 211.1.f) artikuluan jasotako ondorioetarako. Hortaz, betebeharrak ez betetzeak berekin ekarriko du kontratua suntsiaraztea, erakunde kontratugilearen borondatez.

Kontratua ez suntsiarazteko hautabide gisa, kontratistak kontratua gauzatzeko atxikitako pertsona — pertsona propioa edo azpikontratutako enpresakoa izan berdin dio— bere kabuz aldatuko balu, erakunde kontratugileak hitzemandako dagoen pertsona berehala atxikitzea exijitu ahal izango du, edota, hautabidez, nahiz enpresa kontratistarekin zerikusirik ez duen ezintasunagatik, pertsona hori prestakuntza eta esperientzia bereko beste giza baliabide batzuekin ordeztzeko exijitu ahal izango du. Pertsona horrek erakunde kontratugilearen berariazko adostasuna izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo bitartekoak atxikitze betebeharra egiztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu ahal izango dira lizitzaileak —haiekin dituzten lotura juridikoak edozein izanik ere—; baldin eta frogatzen bada kontratuaren indarraldi osoan kaudimen hori eta/edo bitarteko hori benetan dagoela eta lizitzaileek jotzen duten erakundeak kontratatze debekurik ez bada.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi duten lizitzaileek hala adierazi beharko dute 1. gutun-azalean (zehazki, Kontratazio Agiri Europar Bakarraren II. zatiko C atalean) sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean.

Halaber, eskaintzarik onena aurkezten duen lizitzaileak asmoa bada beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko, frogatu beharko du beharrezko baliabide guztiak izango dituela. Horretarako, erakunde horien idatzizko konpromiso bat aurkeztuko du (**II. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera landua).

Konpromiso hori notarioaren aurrean sinatu beharko du/dute eskaintza onena aurkezten duen lizitzaileak jotzen duten erakundeak/erakundeek, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitze eskatutako konpromisoa egiztatzeko. Adieraziko du/dute lizitzaileak parte hartu behar duen lizitazioaren baldintzak beren hedadura osoan ezagutzen dituela/dituztela, eta aipatutako atxikitze baliabideak eta/edo kaudimena badituela/badituztela, eta horren ziurtagiri bat aurkeztuko du/dute (17. klausulan jasotako moduan). Gainera, lizitzaile horren esku, esleipendun gertatuz gero, kontratua gauzatzeko behar diren baliabide guztiak jartzeko borondate atzerazina agertu behar du/dute (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta; erakunde kontratugileak berariaz baimendu behar du haiek ordezkatzeko edo aldatzeko). Idatzi hori aurkeztearen ondorioa izango da erakunde kontratugileak konpromiso hori onartzen duela, baldin eta lizitzailea esleipendun suertatzen bada.

Konpromiso hori aurkeztuko du eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatuzaileak 10 egun balioduneko epean, Kontratazio Organoak ondorio horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeke debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak —klausula honetan jasotakoak— bete egin beharko dira eskaintzak aurkezteko azken datan, eta kontratua gauzatzeko unean iraun beharko dute.

### **13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**

#### **13.1. AGIRIAK ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA**

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria eskuragarri egongo dira lizitazio-iragarkia argitaratzeko egunetik eta erakunde kontratugilearen kontratugile-profilean proposamenak aurkezteko epe osoan.

Baliabide ez-elektronikoen bidez Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria jasotzen diren kasuetan, **Karatularen 11.1. puntuak** adieraziko da.

#### **13.2. AURKEZTEKO BITARTEKOAK**

Proposamenak bitarteko elektronikokoak erabiliz aurkeztuko dira, SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak betez, baldin eta ez den SPKLaren xedapen gehigarri horretako 3. atalean aurreikusitako baldintzaren bat ematen eta **Karatularen 11.1 puntuak** hala adierazten.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko beharrezko informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta dataren baliozkotzea barne, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren webgunean adierazten dira honako helbide honetan: <http://www.contratacion.euskadi.eus>

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez bi fasetan bidali ahal izango dira. Lehendabizi, eskaintzaren aztarna elektronikoa transmitituko da. Hori jasoz gero, edozein ondoriotarako eskaintza aurkeztu dela ulertuko da. Eta ondoren, 24 orduko epean, eskaintza bera bidali beharko da. Bigarren bidalketa aipatutako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ulertuko da.

Eskaintzaren aztarna elektronikoa deitzen zaio honako baldintza hauek betetzen dituen datu-multzoari: datu horiek sortzeak, zalantzarik gabe, eskaintza beraren edukiarekin erlazionatzen direla eta eskaintza horren edukian aldaketaren bat egin dela hautematea bermatzen du. Era horretan, eskaintzaren integritatea bermatzen da. Espedientean jaso behar diren dokumentuen kopia elektronikoen kasurako indarreko legerian finkatutakoa bete beharko dute, administrazio-prozedura erkideari dagokionez, eta bertan finkatutako ondorioak izango dituzte.

**Karatularen 11.1. puntuak** proposamenak bitarteko ez-elektronikoen bidez aurkezteko aurreikusten duen kasurako, lizitatuzaileek, bertatik bertara edo posta bidez, eta Karatularen 11.1. puntuak adierazitako epean, tokian eta ordutegian, hiru gutun-azal itxi aurkeztu beharko dituzte, aurrerago adieraziko den dokumentazioarekin. Gutun-azal horietan honako datu hauek adieraziko dituzte: zein kontrataziora aurkezten diren, gutun-azal bakoitzaren zenbakia (1. gutun-azala edo 2. gutun-azala edo 3. gutun-azala, bidezkoa dena), enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izena eta abizenak eta noren izenean egiten duen, telefono-zenbakiak eta posta elektronikoko helbidea. Hori guztia irakur



daitekeen moduan aurkeztuko dute.

Bitarteko ez-elektronikoen bidez aurkeztu ahal izateko **Karatularen 11.1 puntuan** aurreikusitako ordutegi-muga ez da aplikatuko proposamenak postaz bidaltzen badira. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko azken egunaren edozein ordutan aurkeztu ahal izango dira; betiere, ondorengo paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badira.

Lizitatuzaileak proposamena postaz bidaltzen baldin badu, bidali duen eguna egiaztatu beharko du postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali duela adierazi beharko dio erakunde kontratugileari egun horretan bertan telex, fax (ondorengo zenbakira: 943 32 79 20 edo presako telegrama bidez). Proposamena bidali izana posta elektronikoen bidez ere adierazi ahal izango da (helbide honetan: etxegintza@donostia.eus). Posta elektronikoen bidez jakinarazteak baliorik izango badu, nahitaezkoa izango da jasota egotea bai jakinarazpenak bidali izana, bai jaso izana, bai haien eduki osoa; eta igorlea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzea. Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratuko da, gero espedienteari eransteko. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, jakinarazpenean adierazitako epea igaro ondoren jaso ezean, dokumentazioa ez da onartuko. Adierazitako dataren ondoren 10 egun natural igaro eta proposamena hartu ez bada, ez da inola ere onartuko.

### **13.3. GUTUN-AZALEN EDO ARTXIBO ELEKTRONIKOEN EDUKIA**

Lizitatuzaileen proposamenak agiri honetara eta bere karatulara, Preskripzio Teknikoen Agirira eta kontratuzko gainerako dokumentaziora egokituko dira; eta haiek aurkezteak berekin dakar lizitatuzaileak baldintzarik gabe onartzea haien klausulen osotasuna, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Gutun-azal edo artxibo elektronikoen bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua izango du.

Gutun-azal fisikoak (proposamenen aurkezpena bitarteko ez-elektronikoen bidez egitean erabiltzen dira) edo artxibo elektronikoen bidez aurkezpena bitarteko elektronikoen bidez erabiltzen diren kontuan hartu gabe, 1. gutun-azala, 2. gutun-azala eta 3. gutun-azala izendatuko dira.

Lizitatuzaileak sinatuta egongo den gutun-azal edo artxibo elektronikoen bakoitzean honako datu haiek adieraziko dira:

Lehiaketaren izena eta, hala badagokio, lizitatuzaileak eskaintza aurkezten duen lotea edo loteak;  
Lizitatuzailearen eta hau ordezkatzeko duen pertsonaren izenak;

Harremanetarako telefono zenbakia.

## **1. gutun-azala. “AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”**

1. gutun-azalean hau idatzi beharko da:  
(kontratuaren izena)

1. gutun-azala: Aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa  
Lizitatzailerak:

Lizitatzailerak dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Agiri honi **III. Eranskin** gisa gehituko zaion kontratazio-agiri europar bakarraren (aurrerantzean, KAEB) formulariora egokituko den erantzukizunpeko adierazpena. Jarraian adierazitakoaren arabera beteko da:
  - a) KAEBa 2016ko urtarrilaren 5eko Batzordearen 2016/7 Berearazteko Erregelamenduaren (EB) —kontratazio-agiri europar bakarraren formulario normalizatua finkatzen duena— I. Eranskinean bildutako Jarraibideen arabera bete beharko da.
  - b) KAEBaren “IV. zatia: Aukeraketa-irizpideak” atalarekin zehazki lotuta, lizitatzailerak A atala —Aukeraketa-irizpide guztiei buruzko ohar globala— baino ez dute bete beharko.
  - c) Lizitatzailerak Agiri honetako 12. Klausularen arabera, beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo bitartekoak erabili behar dituen kasuetan, erakunde horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du. Bertan, KAEBaren II. eta III. zatietako A (“Operadore ekonomikoari buruzko informazioa”) eta B (“Operadore ekonomikoaren ordezkari buruzko informazioa”) ataletan eskatutako informazioa jaso beharko da.
  - d) Hainbat enpresari aldi baterako elkarte moduan aurkezten diren kasu guztietan, bertan parte hartzen duen enpresa bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko dute, eta bertan KAEBaren II.etik V.era bitarteko zatietan eskatutako informazioa jasoko da.
2. **Karatularen 10. puntuaren** arabera, kontratu egikaritzeko gutxienez giza baliabide eta/edo baliabide material jakin batzuk atxikitze eskatzen bada, lizitatzailerak kontratua egikaritzeko giza baliabide eta/edo baliabide material horiek atxikitze konpromisoa aurkeztu beharko dute, **IV. Eranskin** gisa Agiri honi gehitutako ereduaren arabera.
3. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresariak elkarte eratzten dutenen izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa-elkarte eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresariak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahalzun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahalzun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, enpresaburuek ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.
4. Atzerriko enpresek berriazko adierazpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio foruari

uko egiten diotela adieraziko dute.

5. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, agiri honen **V. Eranskin**eko ereduaren arabera.

#### OHARRA:

Erakunde kontratugileak lizitatzailerari eskatu ahal izango die ziurtagiri guztiak edo horien zati bat aurkez dezaten; kontuan hartuz gero arrazoizko zalantzak daudela 1. puntuari adierazitako adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari dagokionez, edota hori beharrezkoa denean prozedura egoki garatzeko.

Aurrekoa gorabehera, enpresaria inskribatuta badago Sektore Publikoko Lizitatzailerari eta Enpresa Saileko Erregistro Ofizialean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean, enpresako espediente birtualizat, dokumentuen biltegiak elektronikoko sistematizat edo aurrekalifikazioko sistematizat, eta horiek organoentzat doan eskuragarriak direnean, ez du betebeharririk izango ziurtagiriak nahiz beste dokumentu-frogarik aurkezteko, aipatutako lekuetan inskribatuta dauden datuei dagokienez.

#### **2. gutun-azala. “KUANTIFIKATZEKO BALIO-JUDIZIOA BEHAR DUTEN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA”**

2. gutun-azalean hau idatzi beharko da:  
(kontratuaren izena)

2. gutun-azala: Kuantifikatzeko balio judizioa behar duten irizpideen buruzko dokumentazioa.  
Lizitatzailerari:

lizitatzailerari **Karatuaren 11.2. puntuari** adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute gutun-azal honetan.

Lizitatzailerari kontu berezia izan beharko du gutun-azal honetan gehitu beharreko dokumentazioa prestatzeko garaian; izan ere, edukiari dagokionez, emandako jarraibideetara egokitu beharko baitu. Orobat, ezin izango da eskaintzaren inguruko orientabideak edo formulak erabilita ebalua daitezkeen alderdiak jakitera eman ahal izango dituen erreferentziarik egin.

Printzipio horiek urratzen dituzten eskaintzak ezetsi eta prozeduratik baztertuko dira.

Erakunde kontratugileak, halaber, eskubidea du lizitatzailerari aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

**Karatuaren 12. puntuari** arabera, kontratua gauzatzeko atxiki beharreko giza baliabideak baloratzen badira, kontratatuen kontratua gauzatzeko atxikitako pertsonak bere aldetik aldatzen baditu, erakunde kontratugileak konprometitutako pertsonak berehala atxikitzeko exijitu ahal izango du edo, kontratatuekin zer ikusia ez duten arrazoiengatik hori egitea ezinezkoa bada, pertsona horiek antzeko prestakuntza eta esperientzia duten batzuek ordezkatzea exijitu ahal izango du. Pertsona horiek erakunde kontratugilearen berriazko adostasuna izan beharko dute.

### **3. gutun-azala. “FORMULAK ERABILITA EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”**

3. gutun-azalean hau idatzi beharko da:  
(kontratuaren izena)

3. gutun-azala: Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa  
Lizitatzailerak:

Lizitatzailerak, formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkezteko, Agiri honi **VI. eranskin** gisa atxikitako eredura egokitu beharko dute. (A edo B, eskaintza lote batera edo batzuetara aurkezten den, edo lote guztietara eskaintza integratzailea aurkezten den kontuan hartuz)

Erakunde kontratugileak, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, 1., 2. eta 3. gutun-azalean aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna ziurtatu ahal izango du. Enpresak aurkeztutako datuetan edo egoeretan faltsutasunik aurkitzen bada, horrek kontratua baliogabetzea ekar dezake, kontratistari berari egozteko moduko ez betetzeagatik.

#### **14. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK**

Esleipen-irizpideak, dagokien haztapenez adierazita, **Karatularen 12. puntuan** jasotakoak izango dira.

#### **15. EBALUAZIO-BATZORDEA**

Kontratazio Organoak ebaluazio-batzorde baten laguntza izango du. **Karatularen 13. puntuan** adierazten dira batzorde horren kideak.

#### **16. PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Ebaluazio Batzordeak aurretiaz kalifikatuko du 1. gutun-azalean (“Aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa”) jasotako eta legezko epean eta eran aurkeztutako dokumentazioa. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak topatuko balitu, erakunde kontratugileak lizitatzailerari hiru egun naturaleko epea emango dio haiek zuzentzeko.

Ondoren, 2. gutun-azala (“Kuantifikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideei buruzko dokumentazioa”) irekiko da, bertan bildutako dokumentazioa aztertu eta baloratzeko.

Kuantifikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideei formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei dagokiena baino haztapen handiagoa egotzen badiete, kuantifikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideen balorazioa Batzorde batek egin beharko du. Batzorde hori **Karaturan** adierazten diren kideek osatuko dute.

2. gutun-azaleko dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, 3. gutun-azala (“Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) zabalduko da.

3. gutun-azala (“Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) zabaldu aurretik, kuantifikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideei buruzko dokumentazioaren balorazioaren emaitza jakinaraziko diete lizitatzailerei.

Hori egin ondoren, 3. gutun-azalean (“Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) jasotako dokumentazioa irekiko da, berori aztertu eta baloratzeko asmoz.

Dena den, 3. gutun-azala (“Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) ekitaldi publikoan irekiko da, baldin eta, **Karatularen 11.1. puntuaren** arabera, proposamenen aurkezpenean baliabide elektronikoak erabiltzen ez badira.

3. gutun-azala (“Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) ekitaldi publikoan irekitzen bada, lizitatzaille guztiei jakinaraziko diete 2. gutun-azala (“Kuantifikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideei buruzko dokumentazioa”) eta 3. gutun-azala (“Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) noiz, zein ordutan eta zein lekutan irekiko diren. Kontratatzaileren profilean argitaratuko dira inguruabar horiek, 48 ordu lehenago gutxienez.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu 1098/2001 EDaren 84. artikuluan aurreikusitako arrazoietakoren batean sartuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztutako proposamenen zerrenda Kontratazio Organoari igorriko dio, handienetik txikienera sailkatuak –**Karatularen 12. puntuan** ezarritako esleipen-irizpideak kontuan hartuta–, eta eskaintza onena identifikatuko du.

Lizitatzaille jakin bat kanporatzea erabakitzen bada, erakunde kontratugileak kanporatutako lizitatzaileri berriaz emango dio kanporatzearen berri.

Proposamena egin aurretik, bidezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Puntuazio onena lortu duen lizitatzaileren eskaintza ezohiko moduan baxutzat hartzen bada, **Karatularen 12. puntuan** adierazitako parametroen arabera, Ebaluazio Batzordeak SPKLaren 149. artikuluan jasotako prozedurari jarraituko dio lizitatzailleak dagokion justifikazioa egin dezan.

Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik ematen proposatutako lizitatzaileren alde erakunde kontratugilearen aurrean. Nolanahi ere, Kontratazio Organoak kontratua egindako proposamenari jarraiki esleitzen ez badu, erabaki hori arrazoitu egin beharko du.

## **17. KONTRATUA ESLEITZEA**

Esleipenerako lizitatzaillea aukeratzeko garaian, Kontratazio Organoa, normalean, bat etorriko da Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Bestela, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu behar du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.

Ebaluazio Batzordeak egindako proposamena Kontratazio Organoak onartu ondoren, erakunde kontratugileak errekerimendua egingo dio proposamen hobereana egin duen lizitatzaileri hamar egun baliiodunen barruan, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita, honako dokumentazio hau aurkez dezan:

1. Eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko datan, honako eskakizun hauek betetzen dituenaren ziurtagiriak: erakunde kontratugilearekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak eta agiri honen 12. klausulan eskatutako gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ez izateari buruzko baldintza guztiak, jarraian adierazten den eran.

Aldi baterako elkarte batean sartuta parte hartu nahi duten enpresariak proposamena aurkeztuz gero, aipatutako dokumentazioak elkarte osatu behar duten enpresa guztiena izan behar du.

- (i) Lizitatuzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasunari eta jarduteko gaitasunari buruzko ziurtagiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko ahalmena frogatzeko, dokumentu hauek aurkeztuko dira: eratzearen eskritura edo dokumentua, estatutuak edo fundazio-egintza, jarduerak bete beharreko arauak jasotzen dituztenak, dagokien erregistro publikoan inskribatuak, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.
- Europar Batasuneko kide diren estatuetakoen enpresari ez espainolei dagokienez, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, kasuan kasu Estatu legeriaren arabera dagokien erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar da, edo zinpeko deklarazio edo ziurtagiri bat aurkeztu bestela, ezar daitezkeen Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.
- Atzerriko gainerako enpresarien jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia-misio iraunkorraren txostena beharko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-esparruko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdinsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitatekiko kontratazioetan parte hartzea.

Ez da aurkeztu beharko Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetakoen enpresen elkarrekotasunari buruzko txostena.

- Pertsona fisikoak diren enpresarien kasuan, nortasun agiri nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko.
- Besteren izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek nortasun agiri nazionalaren kopia eta horretarako behar besteko ahalordea aurkeztuko dute. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edota, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitzaileek, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, atal honetan (i) aipatutako dokumentazioaren orde. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitzaileak ziurtagiriak adierazitakoa aldatu ez dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpen sinatu bat aurkeztuko du.

(ii) Agiri honetako 12. Klausulan eskatutako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatzen duen dokumentazioa.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa. Hala badagokio, lizitzailearen urteko negozio-bolumena honela egiaztatuko da:
  - Merkataritza Erregistroan onartutako eta jarritako urteko kontuen bidez, enpresaria erregistro horretan izena emanda balego; bestela, izena emanda egon behar duen erregistro ofizialean jarritakoen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatuak ez dauden banako enpresariak Merkataritza Erregistroak legeztatutako urteko kontuen eta inbentarioen liburuaren bitartez frogatuko dute euren urteko negozio-bolumena.
  - Lizitzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, haren negozio-bolumena adierazita.
- Kaudimen teknikoa edo profesionala. Hala badagokio, eskatutako gaitasuna egiaztatuko da azken hiru urteetan egindako horniduren zerrenda baten bidez. Zerrenda horretan agertuko dira horniduren zenbatekoa, data eta hartzaile publiko edo pribatua. Egindako hornidura horiek organo eskudunak luzatu edo ikus-onetsitako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean edo, hartzailea subjektu pribatua bada, horrek luzatutako ziurtagiri baten bitartez, edo, ziurtagiririk ezean, lizitzailearen adierazpenaren bidez, horren esku dauden dokumentuak, prestazioa egin izana ziurtatuko dutenak, erantsirik. Kontratista enpresa sortu berria denean (halakotzat hartuta bost urtetik beherako antzintasuna duena), haren gaitasun teknikoa SPKLaren 90.1. artikuluko b) eta i) letren artean adierazitako bide batetik edo gehiagotatik egiaztatuko da —baina ez da inola ere aplikatzekoa izango horren a) letran ezarritakoa hornidura kopuru jakin bat gauzatzeari buruz—.
- Sailkapena. Hala badagokio, sailkapena organo eskudunak luzatutako ziurtagiri bidez frogatuko da. Horrekin batera, ziurtagiri hori indarrean dagoela eta bertan adierazitako baldintzak aldatu ez direla adieraziko duen lizitzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da. Esleipendun suertatuz gero, berriro aurkeztuko da agiria, kontratua formalizatzean.

Ziurtapenak lizitzailea adierazitako multzoan eta azpimultzoan eta eskatzen den kategorian edo maila goragoko batean sailkatuta dagoela ziurtatuko du.

Ziurtapen horrekin, halaber, Klausula honen 1. (i) atalean adierazitako baldintzak ziurtatuko dira, hau da, lizitazailearen eta, hala badagokio, bere ordezkariaren jarduteko gaitasuna ziurtatuko dira.

(iii) Agiri honi **VII. Eranskin** gisa erantsitako eredia jarraituz, SPKLaren 71. artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetan erori ez dela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen egiaztatzea.

(iv) **Karatularen 10. puntuan**, hala badagokio, zehazten diren baldintzak betetzen direnaren agiriak.

2. Hala badagokio, enpresak kontratua gauzatzeko hitz emandako giza baliabideak eta baliabide materialak eskaintzeko modua duela ziurtatzen duen dokumentazioa.

(i) Hala badagokio, kontratua gauzatzeko hitzemandako giza baliabideei dagokienez, aukeratutako lizitazaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Kontratua gauzatzeko atxikitako talde osoaren izen-identifikazioa, curriculum vitaeari dagozkion fitxekin batera. Horietan egiaztatuko da ezarritako eskakizunak betetzen direla:

1. Titulazio akademiko ofiziala.
2. Dagokion arloan duen eskarmentua.
3. Hala badagokio, erakunde kontratugileak eskatzen duen beste edozein alderdi.

b) Giza baliabide horiek guztiak egiazki enpresaren esku daudela egiaztatzeko dokumentazioa.

Datu pertsonalak babesteren arloan aplikatzekoa den Estatuko zein Europar Batasuneko araudian jasotakoaren arabera, eta giza baliabideei buruzko aipatutako dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, honako hau jasoarazten da: (i) informazio hori bildu eta erabiltzeak berekin ekarriko du datu pertsonalak tratatzea lizitazailearen aldetik, tratamenduaren erantzule gisa; eta (ii) informazioa erakunde kontratugileari entregatzeak, klausula honetan jasotakoa betetzeko, berekin ekarriko du lizitazaile horrek datu pertsonalak jakinaraztea, lagatzaile gisa.

Ondorio horietarako, hautatutako lizitazaileak bete egin beharko ditu datu pertsonalak babestearen arloan aplikatzekoa den Estatuko eta Europar Batasuneko araudian xedatutakoaren ondorioz hari dagozkion betebeharrak, aurreko paragrafoan aipatutako datuak tratatu eta lagatzeari dagokionez. Zehazki, eta bestelako betebeharrei kalterik egin gabe, tratamenduaren arduradun den heinean aukeratutako lizitazaileak lortu egin beharko du, bere ardura bakarpean, interesatuen oniritzi kontziente eta informatua datu pertsonal horiek



jakinarazi ahal izateko. Alderdi hori erakunde kontratugilearen aurrean egiaztatu beharko du, eskaera egiten zaion guztietan.

- (ii) Hala badagokio, kontratua gauzatzeko hitzemandako baliabide materialei dagokienez, aukeratutako lizitatzailleak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:
  - a) Kontratua gauzatzera atxikitako baliabide materialen identifikazioa, ezarritako eskakizunak betetzen direnaren egiaztagiriekin batera.
  - b) Baliabide material horiek guztiak egiazki enpresaren esku daudela egiaztatzekeo dokumentazioa.

Erakunde kontratugileak eskubidea du lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

3. Agiri honen 11. klausulan jasotako behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen frogagiria.

4. Hala badagokio, adierazpenen notario-akta aurkeztuko da, lizitatzailleak, eskatzen den kaudimena duela eta/edo kontratura ezarritako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa duela egiaztatzekeo, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu nahi badu, **II. Eranskin**ean jasotako ereduaren arabera.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkartearen lege-sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa-elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

Erakunde kontratugileak eskubidea du lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak topatuko balitu, erakunde kontratugileak lizitatzaileri hiru egun naturaleko epea eman ahal izango dio haiek zuzentzeko.

Egokiro beteko ez balitz adierazitako epean dokumentua aurkezteko eskakizuna edo aurkeztutako dokumentazioak akats edo ez-egite konponezinak balitu, lizitatzailleak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren ehuneko 3 (BEZa kanpo) eskatuko zaio zigor gisa. Halakoetan, hurrengo lizitatzaillearen dokumentua jasoko da, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran.

Kontratazio Organoak kontratua esleituko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliadunen barruan eta proposamenak irekitzen direnetik gehienez ere 2 hilabeteko epean.

Kontratazio Organoak ebazpen arrazoitu batean jasoko du esleipen-erabakia, eta hautagaiei eta lizitatzailerei jakinaraziko die, jakinarazpenak jasotzeko haiek adierazitako lehentasunezko bitartekoaren bidez. Erabaki hori kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 egun naturaleko epean.

## 18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Dokumentu hori zehatz-mehatz egokituko da lizitazioaren baldintzetara. Kontratua formalizatzen duen dokumentuan ezin izango dira inola ere sartu kontratazioaren baldintzak aldatzea ekarriko duten klausulak.

Esleipendunak, haatik, kontratuaren eskritura publikoa egiteko eska dezake. Kasu horretan, bere kontura izango dira sortzen diren gastuak.

Kontratua ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerari eta hautagaiek igorri eta hurrengo hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Kontratuaren formalizazioa argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, gehienez hamabost egun naturaleko epean, kontratua burutu ondoren, erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean.

Gainera, formalizazioaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da. Horretarako, kontratazio-organoak iragarki hori kontratua formalizatu eta, gehienez, 10 eguneko epean igorriko du Aldizkarira.

Esleipendunari egoztekoak zaizkion kausengatik, kontratua formalizatu ez balitz adierazitako epearen barruan, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa (BEZa kanpo) eskatuko zaio, zigor gisa. Zenbateko hori ordainduko da, lehenik, behin betiko bermearen kontra, SPKLaren 71. artikuluko 2) atalaren b) letran ezarritakoa alde batera utzi gabe. Halakoetan, kontratua hurrengo lizitatzailerari esleituko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran, eta agiri honen 17. klausulan exijitutako dokumentazioa eskatu ahal izango zaio. Lizitatzailerak hamar egun balioduneko epea izango du dokumentazio hori aurkezteko.

## **19. KONTRATUAREN ARDURADUNA**

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izendatuko du. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, erakunde kontratugileak eman dizkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko edo juridiko bat izan daiteke, erakunde kontratugilearen barrukoa zein kanpokoa.

Kontratastak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

## **20. KONTRATUA GAUZATZEA**

Kontratua jarraian adierazten diren baldintzen arabera gauzatuko da:

- a) Kontratastak kontratua gauzatuko du horren termino eta baldintzen arabera, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honetan eta horren Karatulan xedatutakoari jarraituz, eta, baita ere,

Preskripzio Teknikoen Agirian eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan jasotakoari jarraituz. Gainera, erakunde kontratugileak, haren interpretazioan, kontratistari ematen dizkion jarraibideak hartuko dira kontuan.

- b) Kontratua lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloetan indarrean dauden arau, lege eta hitzarmenen mende dago.

Testuinguru horretan, kuantifikatzeko judizio-balioa behar duten irizpideei buruzko dokumentazioa jasotzen duen 2. gutun-azalean, lizitatuzaileek, esleipendun suertatuz gero, adieraziko dute zein hitzarmen kolektibo izango zaien aplikatzekoa kontratuaren xede den jardura betetzen duten langileei. Kontratua gauzatuko duten langileei kontratistak aplikatuko dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-erabakian jasoko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Halaber, kontratua esleitu eta gero langileei egiazki aplikatuko zaizkien lan-baldintzen inguruan eskatu zaion informazio guztia ematera behartuta egongo da kontratista.

Kontratistak, kontratuaren gauzatze osoan zehar, aplikatzekoa den hitzarmen kolektibo sektorialaren eta langilearen kategoria profesionalaren arabera ordainsaria ordaindu beharko du. Aipatutako ordainsaria ezin da inola ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.

Atal honetan xedatutakoak gauzatzeko baldintza bereziaren eta funtsezko betebeharraren izaera izango du SPKLaren 211.1. f) artikuluan jasotako ondorioetarako, eta, beraz, horiek ez betetzea kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da, erakunde kontratugileak hala nahi badu.

- c) Kontratua kontratistaren arriskuz eta ausaz gauzatuko da.
- d) Erakunde kontratugileak kontratu-betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar bezala gauzatzen direla kontrola, egiazta eta gainbegira dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, erakunde kontratugileak egokitzen jotzen dituen kanpo-laguntzak jasoko ditu, kontratu-betebeharrak behar den bezala betetzen direla egiaztatzeko edo auditoria egiteko, bai eta lanak kalitate-maila egokiarekin garatzen direla egiaztatzeko ere.

Kontratistak zerbitzuekin lotuta erakunde kontratugileak eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztuko ditu, beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen inguruan lan, administrazio edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du.

Kontratistak ez du oztoporik jarriko erakunde kontratugileak egiten dituen ikuskapen- eta kontrol-lanetan.

Dena dela ere, erakunde kontratugileak edozein motatako ez-betetze edo eragozpenen bat antzemango balu, horren berri zuzenean emango zaio kontratuaren arduradunari, berori baitagozkio, azken batean, hornidura egiten duten langileak antolatu eta gainbegiratzeko edo, hala badagokio, zigortzeko eskumenak.

- e) Langile guztiak kontratistaren mendekoak dira. Kontratistarenak dira bere enpresari-izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak, eta ezin izango zaio erakunde kontratugileari erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Kontratista izango da arduradun bakarra kontratua gauzatzeko ardura duten langileekin —langile propioekin edo noizean behin azpikontratitzen direnekin— lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). Erakunde kontratugileak ez du lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ezta Gizarte Segurantzarekin edo zerga-esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharreri dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua gauzatzean gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak.

- f) Kontratista behartuta egongo da, hala badagokio eta berariaz, **Karatularen 15. puntuan** adierazten diren baldintzak betetzera.

## 21. KONTRATU-BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira kontratu-betebeharrak:

- a) Kontratuaren betebehar nagusia bere klausuletan, eta agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakora hertsiki lotuta gauzatzea.
- b) Agiri honetako 20. Klausulako b) letran jasotako baldintzetan, indarrean dauden, eta laneko, Gizarte Segurantzako, eta laneko segurtasun eta osasuneko esparruetan aplikatzekoak diren legez-xedapenak, araudiari lotuak eta xedapen konbentzionalak betetzea. Testuinguru horretan, kontratistak, kontratuaren gauzatze osoan zehar, aplikatuko den hitzarmen kolektiboaren eta langilearen kategoriaren araberrako ordainsaria ordaindu beharko du. Aipatu ordainsariak ezin du inola ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.
- c) Kontratistaren eskaintzan hitzemandako giza baliabide —bertako langileak eta azpikontratutako enpresako langileak izan daitezke— eta/edo baliabide material guztiak kontratura atxikitzea.
- d) Jarduera garatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak bere kontura lortzea.
- e) Une bakoitzean aplikatzekoa den indarreko sektore-araudian xedatutakoaren arabera eskaintzea zerbitzuak. Helburu horiekin, bai kontratistak bai kontratistaren langileek ziurtagiri guztiak eduki behar dituzte. Ziurtagiri horiek une bakoitzean indarrean dagoen araudiak eskatzen duen edozein betebehar betetzen dutela frogatuko dute.
- f) Behin betiko bermeari eustea eta hura berritzea.
- g) Kontratua gauzatzen den bitartean, Agiri honen 25. Klausulan kontratistari eskatzen zaizkion estaldurak eta aseguruak kontratatuta edukitzea.
- h) Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragin ahal zaizkien kalte-galera guztien kalte-ordainak.

- i) Kontratua behar den bezala garatu eta betetzeko erakunde kontratugileak beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak eskaintzea, ordainketa gehigarriak jasotzeko eskubiderik gabe, adibidez, laneko bileretara edo bilera informatiboetara joatea.. Betebehar hori kontratua amaitu arte mantenduko da.
- j) Greba kasuan, zerbitzuak beteko dira. Zerbitzu horiek bermatzea ezinezkoa bada, erakunde kontratugileak ahalmena du zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren kontratuak sustatzeko; kasu horretan, fakturaziotik kenduko da kontratu horiei dagokien kopurua.

Grebak irauten duen bitartean, benetan egindako zerbitzuei dagokien prezioa bakarrik ordainduko da.

- k) Langileak ordezkatzera, hauek eurei dagokien lana behar bezala ardura eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak eskaintzean ardura nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. Erakunde kontratugileak eskaera egin eta gehienez ere hogeita lau orduko epean egingo dira ordezkapenak. Langileak ordezkatzera erakunde kontratugileak ez du erantzukizunik hartzen bere gain, kontratistak zer ikusia duten langileekin dituen harremanei dagokienez.

Langile horiek, jardunean hasi aurretik, behar duten baimena badutela frogatu beharko dute.

- l) Langileak ordezkatzera gaixotasun, opor, baimen, istripu, eta abarreatatik izaten diren bajak estaltzeko; betiere, kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean, eta jarraituan egingo direla ziurtatuta. Gehienez ere hogeita lau orduko epean egin beharko ditu ordezkapenak.
- a) Agiri honetan, Karatulan eta/edo datu pertsonalen babesari buruz aplikatzekoa den Estatuko eta Europar Batasuneko araudian aurreikusitakoaren arabera, datu pertsonalak babestean bete behar dituen obligazio guztiak betetzen dituela frogatzea.
- m) Hala badagokio eta berariaz, **Karatularen 15. puntu** adierazten diren betebeharrak betetzea.

**Karatularen 15. puntu** barne hartutako betebeharrak funtsezko kontratu betebeharren izaera izango dute SPKLaren 211. 1. f) artikuluan jasotako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke, erakunde kontratugileak nahi badu.

## 22. DATU PERTSONALEN BABESA

Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Estatuko eta Europar Batasunaren beste edozein arauditan aurreikusitakotik ondorioztatutako obligazioak bete beharko ditu kontratistak. Halaber, bere jardueren barruan eta bere kontura eta erabakiz gauzatuko duen datu pertsonalen tratamenduaren ondorioz, kontratua indarrean dagoen bitartean aplikatzekoa den datuak babesteari lotutako beste edozein arautan bildutakoa bete beharko du, tratamendu horren arduradun den aldetik.

Erakunde kontratugilearen kontura datu pertsonalen balizko tratamenduarekin lotuta **Karatularen 17. puntuan** zehazki ezartzen denari kalterik egin gabe finkatzen da betebeharrak.

### **23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO EGINBEHARRA**

Informazio publikoa eskuratzearen inguruan indarrean dagoen legeria eta SPK Lan jasotako xedapenetan adierazitakoa alde batera utzi gabe —esleipenaren publizitateari eta hautagai eta lizitatuak emandako beharrek informazioari dagokienez—, erakunde kontratugileak ezin izango du lizitatuak emandako informazioa zabaltzea, baldin eta horiek hura konfidentzialtzat adierazi badute euren eskaintza aurkezteko garaian. Konfidentzialtasunak eragina du, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialetan, eskaintzen alderdi konfidentzialetan eta lehia faltsutzeko erabil daitezkeen beste edozein informaziotan —lizitazio-prozedura honetan nahiz ondorengo batzuetan—.

Kontratistak, bere aldetik, kontratua gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, agirietan edo kontratuan izaera hori ematen bazaio edo berez konfidentzialtzat tratatu behar bada.

Konfidentzialtasun-betebeharrak horri **Karatularen 17. puntuan** adierazitako epean eutsi beharko zaio.

### **24. ERANTZUKIZUNA**

Kontratistak izango du egiten dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikieriek, akatsek edo metodo desegokiak erakunde kontratugileari edo hirugarren batzuei eragin diezazkieketen ondorioena ere.

Kontratistaren betebeharrak da kontratua gauzatzeko eragiketaren ondorioz hirugarrenen gainean eragin daitezkeen kalte eta galerengatik kalte ordainak ordaintzea.

### **25. ASEGURUAK**

Kontratistak bere kontura kontratatuko ditu, kontratuaren iraunaldi osorako, **Karatularen 20. puntuan** adierazitako aseguruak, bertan finkatutako termino eta baldintzetan.

### **26. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA**

Baimendutako iturrietatik eta kostu bakar batekin, informatikako ekipoa (hardware eta software) edo edozein motatako beste ekipoa eta/edo baliabide osagarriak erabiltzeko eta/edo ustiatzeko lizentziak eta eskubideak eskuratzeko obligazioa izango du kontratistak. Hala egingo du, Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakoari jarraituz, eman behar dituen zerbitzuak atxikitzeko, ezartzeko eta/edo mantentzeko.

Halaber, SPKLaren 308.1 artikuluan xedatutakoa kontratazio honi aplikatuko zaio. Horrela izanda, kontratuaren xede diren zerbitzuak egikaritzeko emaitzaren gaineko jabetza, osorik edo edozein fasetan, erakunde kontratugileak bakarrik izango du. Hori guztia, egilearen eskubide moralak eta/edo asmatzaile

gisa aitortu ahal izateko eskubidea kaltetu gabe. Izan ere, Patenteei buruzko uztailaren 24ko 24/2015 Legean eta/edo Jabetza Intelektualeko Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan finkatutakoaren arabera, eskubide hori kontratistak eduki dezake. Hori guztia erakunde kontratugileak behar bezala aztertu beharko du.

Ondorioz, eta **Karatularen 1. puntuan** zehazki finkatuko dena kaltetu gabe, kontratistak erakunde kontratugileari kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitza modu baketsuan erabiltzeko aukera ziurtatu beharko dio. Hala badagokio, bertan jasota dagoen edozein elementuren gainean beharrezko lizentziak eta eskubideak legez eta baimendutako iturrietatik eskuratzera behartuta dago. Haien entregatzeko unean, kontratazio honen arabera erakunde kontratugileari dagozkion eskubideen aurka doazen inolako konpromisoak edo zergak ez daudela adierazi beharko du.

Nolanahi ere, kontratista izango da erantzulea kontratutik kanpo dauden hirugarrenek jabetza intelektualarekin eta/edo industrialarekin lotuta ondokoen inguruan aurkez ditzaketen erreklamazio guztien gainean:

- Zerbitzuak ematean, Industriako Jabetza edo Jabetza Intelektualeko eskubideen bidez babestuta egongo diren materialen, tresnen eta gainerako lanabesen erabilera.
- Kontratazio honen xede diren zerbitzuen emaitza eta emaitza horren parte den edozein elementu.

Aurretik aipatutakoari jarraituz, kontratistak erakunde kontratugileari kontzeptu horiei lotutako erreklamazioetatik honen aldeko kalte-galera guztiengatik ordaindu beharko dio.

## 27. ZIGORRAK

### a) Berandutzearen ondoriozko zigorrak.

Kontratista, berari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik, berandutu izanez gero agiri honetan eta/edo karatulan finkatutako epeetako edozein betetzean, erakunde kontratugileak aukera izango du, nahierara, kontratua suntsiarazteko —agiri honen 33. klausulako baldintzetan— edo hura gauzatzen jarraitzeko. Azken kasu horretan, erakunde kontratugilearen alde sortuko dira **Karatularen 20. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalte-ordain eta kalte-galera guztiez gainera.

Kontratista berandutuz gero, ez da aurretiko intimiziorik beharko erakunde kontratugilearen aldetik.

### b) Kontratututako prestazioak akatsez gauzatzearen edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzearen ondoriozko zigorrak.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak medio, kontratatutako prestazioak akatsez gauzatzen baditu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, erakunde kontratugileak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, agiri honetako 33. klausulan adierazitako baldintzen arabera, edo kontratuak gauzatzen jarraitzea erabaki dezake. Azken kasu horretan, erakunde kontratugilearen alde sortuko dira **Karatularen 20. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalte-ordain eta kalte-galera guztiez gainera.

Zigorak ordaintzeko, enpresa kontratistari ordainketa osoa edo zatikoa egiteko ordaindu beharreko kopuruak kenduko zaizkio, edo bermetik kenduko zaizkio, aurreko kasuan adierazitakoa egitea ezinezkoa denean. Kasu horretan, dagokion erreklamazioa jarriko da eraturako bermea gainditzen duen kopuruagatik.

Nolanahi ere, kontratua suntsiarazi zein jarraitu erabaki, erakunde kontratugileak egokitzen jotzen duen denboran bere bitarteko propioak erabiliz edo hirugarrenen bitartez kontratuarekin jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galerak eta klausula honetan jasotako ondorioak kaltetu gabe.

## 28. KONTRATUA LAGATZEA

SPKLaren 98. artikuluan jasota dauden kontratistaren ondorengoa hautatzeko kasuak alde batera utzita, kontratua subjektiboki alda daiteke kontratu-lagapenaren bidez soilik, klausula honetan ezarritako mugen barruan, eta aukera hori berariaz jasota baldin badago **Karatularen 21. puntuan**.

Lagapenak bete egin beharko ditu SPKLaren 214.2. artikuluko a), b), c) eta d) letretan ezarritako baldintzak; hots:

- a) Kontratazio Organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena, SPKLaren 214.2. a) artikuluan adierazitako baldintzetan. Baimen-eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da. Epe hori igaro ondoren hura emantzat ulertu beharko da.
- b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gutxienez gauzatuta izan behar du, SPKLaren 214.2. b) artikuluan adierazitako baldintzetan.
- c) Lagapen-hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, eskatzekoa zaion kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa edo profesionala izan behar ditu; gainera, ez du kontratatzeko inolako debekurik izan behar, SPKLaren 214.2. c) artikuluan adierazitako baldintzetan.
- d) Esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da, SPKLaren 214.2. d) artikuluan adierazitako baldintzetan.

Lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da.

## 29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarren batzuekin hitzar dezake prestazioaren zati bat egitea, klausula honetan eta SPKLaren 215. artikuluan xedatutakoari lotuz. Salbuetsi egiten dira, hala badagokio, **Karatularen 22. puntuan** adierazitako prestazioak.

Kontratistak Kontratazio Organoari idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua esleitu ondoren eta, beranduen jota, hura gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa; eta adierazi beharko du



prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duen, azpikontratataren edo horren legezko ordezkarien nortasunaz eta harremanetan jartzeko datuez gainera. Halaber, behar adina justifikatu beharko du azpikontratataren gaitasuna hura gauzatzeko, erreferentzia eginez dituen elementu teknikoei, giza baliabideei eta horien esperientziari. Gainera, egiaztatu beharko du azpikontratatistak ez duela kontratatatzeko debekurik, SPKLaren 71. artikulua araberara.

Kontratista nagusiak Kontratazio Organoari idatziz jakinarazi beharko dio informazio horrek duen edozein aldaketa kontratu nagusia gauzatzean, baita azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazioa ere.

Baldin eta azpikontratatistak azpikontratatuko den kontratu-atala egiteko sailkapen egokia bada, kontratatistak, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu beharrik.

Azpikontratatistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratatistek kontratista nagusiaren aurrean baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, erakunde kontratugilearekiko erantzukizun osoa, baldintza-agiriei eta kontratuaren baldintzei zorrotz lotuta gauzatzeko; barne direla SPKLaren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak. Halaber, datu pertsonalak babesteko arloan araudi nazionalak eta Europar Batasunarenak betetzeari buruz SPKLaren 202. artikuluko 1. ataleko azken paragrafoan aipatzen diren ingurumen, gizarte eta lan arloetako betebeharrak ere bete beharko ditu hark.

Erakunde kontratugileak kontratatistak egin dituen azpikontratuen berri izateak ez du eraginik izango kontratista nagusiak daukan erantzukizun eskusiboan.

Azpikontratatistek eta hornitzaileei ordainduko zaie eta ordainketa horiek egiaztatuko dira SPKLaren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

### **30. KONTRATUAREN ALDAKETAK**

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLaren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Gainera, Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du **Karatuaren 23. puntuan** berariaz ohartarazten duenean aukera horren inguruan, puntu horretan jasotako termino eta baldintzetan.

Kontratuaren aldaketek ezingo dute berekin ekarri kontratuan jasota ez dauden unitateko prezio berriak ezartzea.

Kontratuaren aldaketak SPKLaren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

### **31. HARRERA ETA BERMEAREN EPEA**

Kontratua guztiz beteko du kontratistak prestazioa osorik gauzatzen duenean, betiere kontratuan adierazitako terminoetan eta erakunde kontratugilearen adostasunarekin.

Zati bakoitza jasotzen duenean eta lana osorik jasotzen duenean, erakunde kontratugileak erabakiko du kontratistak egindako prestazioak kontratua betetzeko ezarritako baldintzekin bat ote datozen eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak eskaintzeko eta prestazioak jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio.

Kontratistari egotzi dakizkiokeen akatsen ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, erakunde kontratugileak horiek bazter ditzake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Horretarako, 27. klausulan jasotakoa ez da alde batera utziko; nolana, erakunde kontratugileak dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, baita kalte-galeren ordainak ere, kontratatutako prestazioak akatsez egiten badira eta/edo kontratuko baldintzetako edozein betetzen ez bada.

Bermealdia **Karitularen 24. puntuan** adierazten da.

Bermealdi horretan egindako lanetan akatsak daudela ziurtatzen bada, Kontratazio Organoak eskubidea edukiko du kontratistari akats horiek konpon ditzan erreklamatzeko.

Bermealdia amaitzean erakunde kontratugileak ez badu konponketarik egin edo klausula honetan adierazitako salaketarik egin, kontratistak ez du erantzukizunik edukiko egindako prestazioaren gainean.

### **32. KONTRATUA ETETEA**

Erakunde kontratugileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta SPKLaren 208.2. artikuluan jasotako kalte-galera ordaintzen badizkio kontratistari. Ondorio horietarako, artikulua hori berariaz aplikatzekotzat ezartzen da.

### **33. KONTRATUA IRAUNGITZEA**

Kontratua iraungiko da berori betetzeagatik nahiz ondoren arautzen denaren arabera hura suntsiaraztea erabakitzeagatik.

Erakunde kontratugilearen borondatez, kontratua suntsiarazteko kausak izango dira:

- a) Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko edo kaudimen gabezia deklaratzeko.
- b) Kontratistak epeak betetzean berandutza erortzea.
- c) Kontratuaren betebeharrak nagusia ez betetzea.

- d) Funtsezko gainerako betebeharrak ez betetzea, baldin eta horiek halakotzat kalifikatu badira.
- e) Prestazioa hasieran adostutako baldintzetan gauzatzeko ezintasuna, kontratua agiri honetan xedatutakoaren arabera aldatu ezin bada.
- f) Kontratua gauzatzean, kontratistak soldatak ez ordaintzea kontratu hori gauzatzen parte hartzen ari diren langileei nahiz langile horientzat aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea, baita kontratua suntsiaraztean ere.
- g) Oro har, kontratuko edozein betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan jasotakoaren arabera.
- h) Kontratua suntsiarazteko kausa izango dira SPKLaren 313. artikulua 1. atalean ezarritakoak —ondorio hauetarako, haiek berariaz aplikatzekoak deklaritzen dira—:
  - 1. Zerbitzuak ematen hasteari uko egitea edo zerbitzuaren hasiera etetea, Erakunde Kontratugileari egoztekoa zaion kausagatik, lau hilabetetik gorako epeaz, kontratuan prestazioa hasteko adierazitako datatik hasita.
  - 2. Uko egitea zerbitzua gauzatzen hasi ondoren edo kontratua etetea zortzi hilabetetik gorako epeaz, Erakunde Kontratugilearen erabakiz.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako arrazoirik badago, automatikoki suntsiaraziko da. Halakoetan, erakunde kontratugileak hartu duen erabakia fede eman bezala jakinarazi behar dio kontratistari.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak erakunde kontratugilearen esku utzi behar ditu kontratatu diren zerbitzuak eskaintzeko ordura arte landu dituen dokumentu guztiak, eta kontratua dela-eta sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa, erakunde kontratugileak erabilitako eta kontratistari emandako agiriekin batera. Aipatutako dokumentazio guztia erakunde kontratugilearena izango da aurrerantzean.

Horrez gain, dagokion kontratuaren likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian adierazten denaren arabera.

Klausula honetan jasotako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua suntsiaraztean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, erakunde kontratugileak hura gauzatzeko jarraitu ahal izatea.

Suntsiarazte kasu guztietan, benetan egin diren onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du kontratistak, hasiera batean.

Kontratua kontratistari egotzi dakioken edozein arrazoiengatik suntsiaraztean bada, erakunde kontratugilearen alde zorpetuko da **Karatularen 25. puntu**an jasotako zenbatekoa, kasuan-kasuan dagozkion kalte eta galeren ondoriozko edozein ordainez gain. Bi kantitateak behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeke dagoen prezioetik kenduko dira eta soberakinaren erreklamazioa aurkeztuko da.

Hala eta guztiz ere, SPKLaren 313. artikularen 3. ataleko aplikazioa berariaz aitortzen da, hau da:

- a) Klausula honetako h.1 letran aurreikusitako suntsiarazte-kasuetan, kontzeptu guztiengatik, kontratistak kontratuaren esleipen-prezioaren % 3ko kalte-ordaina (BEZ kanpo) jasotzeko eskubidea baino ez du izango.
- b) Klausula honetako h.2 letran aurreikusitako suntsiarazte-kasuetan, kontratistak eskubidea izango du, kontzeptu guztiengatik, egin gabe utzi diren horniduren kontratua esleitzeko prezioaren % 6 jasotzeko, BEZa kanpo, mozkin industrialia dela-eta.

Azkenik, kontratua suntsiarazi ahal izango da erakunde kontratugilea eta kontratista ados jarriz gero. Halakoetan, aldean eskubideak haiek baliozkotasunez adostutakora egokituko dira.

#### **34. ERREGIMEN JURIDIKOA**

Kontratua pribatua da eta, prestaketari eta esleipenari dagokienez, honakoek arautuko dute: Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta Preskripzio Teknikoen Agiriak. Eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, SPKLAN horri buruz ezarritako arauak (esleipen-boterea duten eta herri administrazio ez diren sektore publikoko erakundeen artean arautze bateratura atxikita ez dauden kontratuatarako).

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honakoek arautuko dute kontratua: Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta Preskripzio Teknikoen Agiriak; eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Nolanahi ere, kontratuari aplikatzekoak izango zaizkio SPKLaren 319. artikuluan ezarritako arauak "eraginei eta iraungitzeari" dagokienez.

Gainera, aplikatzekoak izango dira SPKLa eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena; agiri honetan testu arauemaile horietara jotzen duen guztian.

Edozein kasutan, kontratua Estatuaren eta Europar Batasunaren araudien mende egongo da datu pertsonalak babestearen kasuan.

#### **35. JURISDIKZIOA**

Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa izango da eskuduna kontratuak prestatzeari, esleitzeari eta aldatzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko; azken horien aurkaratzeak oinarri duenean SPKLaren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, ulertzen bada aldaketa horrek beste esleipen baten xede izan behar zuela.

Hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoan aurkeztuko da errekurtsioa, SPKLaren 44. artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitakoaren arabera.

Jurisdikzio-ordena zibila izango da eskuduna kontratuaren ondorioei eta kontratua suntsiarazteari dagokionez, klausula honen lehen paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketetan izan ezik.

## **I. eranskina. Abal-eredua.**

[...] erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), IFK [...] eta helbidea (jakinarazpen eta errekerimenduetarako) [...](e)an] dituenak, eta haren izenean [...](e)k] (ahalordedunen izen-abizenak), agiri honen behealdean adierazitako ahalorde askiestetik ondorioztatzen denez egintza honetan behartzeko behar beste ahalorde duenak [...] honako honi ematen dio ABALA: [...] (abalatuaren izena eta abizenak edo helbide soziala), [...] IFK zk., [...]](r)en aurrean, [...] euroko zenbatekoaz, Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintza erakundearen Babes Publikoko Etxebizitzaren eraikinen (Lotea(k):...) garbiketa-zerbitzuaren kontratuaren ondoriozko betebeharrangatik erantzuteko Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintzaren aurrean ..... eurogatik (..... euro).

Erakunde abal emaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2. artikuluan adierazitako eskakizunak betetzen dituela. Abala notario aurrean sinatzen da obligaziodun nagusiarekin solidarioki, banaketa- eta eskusio-onurari espresuki uko eginda, eta [...]](r)en lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da [...]](e)k berori kitzatzea edo itzultzea baimentzen duen arte.

[...](e)n, [...]](e)ko [...]](a)ren [...]](e)(a)n

[Sinadura]

**II. eranskina. Adierazpenen notario-aktaren eredua, eskatutako kaudimena egiaztatzeke eta/edo eskatutako baliabideak atxikitzeke konpromisoa betetzeko, lizitatuak asmoa duenean beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko.**

*[OHARRA: Lizitatuak eskaintza onena aurkeztu duen kasuan, eta lizitatuak, eskatutako kaudimena eta/edo eskatutako bitartekoak atxikitzeke konpromisoa frogatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu nahi duen kasuan baino ez da aurkeztu behar. **Hirugarren erakundeak bete behar du**]*

[...] jaunak/andreak, NAN [...] duenak, [...] enpresaren (IFK:.....) legezko ordezkari gisa, adierazten du ezagutzen dituela [...] (enpresa lizitatuaren izena) lizitatuak lehiatuko duen Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzaren babes publikoko etxebizitza-erakundearen garbiketa-zerbitzua kontratatzeke lizitazioaren baldintzak, eta esleipendun suertatuz gero, kontratua gauzatzeko behar diren bitartekoak lizitatuak horren esku jartzeko borondate ezeztazina adierazten duela, Kode Zibileko 1257.2. artikuluan xedatutakoa espresuki onartuta. Hori aldatu edo ordezkatzeko Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak baimendu beharko du espresuki.

Idazki hori aurkeztuz gero, [...]k konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta lizitatuak hori esleipendun suertatzen bada.

[...](e)n, [...](e)ko [...]aren [...](e)(a)n

[Sinadura]

### **III. eranskina. Kontratazio Agiri Europar Bakarra (KAEB).**

KAEBa helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen ereduaren arabera bete beharko da:

<https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es>

#### **IV. eranskina. Giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitze konpromisoa.**

[...] jaunak/andreak, [...] helbidea eta [...] NAN zenbakia dituenak, bere izenean, edo [...] helbidea eta [...] NAN edo IFZ dituen [...]ren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzaren aurrean Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzaren Babes Publikoko Etxebizitzen eraikinak garbitzeko zerbitzuaren lizitazioa ezagututa (... lotea(k)), honen bidez ondoko hau

#### **AITORTZEN DU:**

Kontratuaren esleipendun suertatzen bada, kontratu hori gauzatzeko kontratazio hori arautzen duen Karatulako 10. puntuan eskatutako gutxieneko giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitze konpromisoa hartzen duela.

Eta horrela izan dela ziurtatzeko, eta dagozkion ondorioetarako, giza baliabideak atxikitze konpromiso hau luzatu da [...]n, [...]ko [...]aren [...]](e)an.

[Sinadura]



## V. eranskina. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko baliabidea adieraztea.

[...] jaunak/andreak, [...] helbidea eta [...] NAN zenbakia dituenak, bere izenean, edo [...] helbidea eta [...] NAN edo IFZ dituen [...]ren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzaren aurrean Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzaren Babes Publikoko Etxebizitza-erakinak garbitzeko zerbitzuaren lizitazioa ezagututa (... loteak), honen bidez, lizitazio honi lotuta [...]ak egin behar duen edozein jakinarazpen jasotzeko lehentasunezko bitarteko gisa honako hau aukeratzen du (\*):

€ **Posta elektronikoa.**

€ **Posta ziurtatua.**

€ **Faxa.**

(\*) Adierazi bat.

Nolanahi ere, ondoren adierazitako datuak zehaztuko dira jakinarazpenak egiteko:

Helbide elektronikoa: .....

Posta-helbidea: .....

Fax zk.: .....

Harremanetarako telefonoak: .....

*[Oharra: Jakinarazpenak ahalik eta arinen egiteko, lizitatzailaren helbide elektronikoari lehentasuna ematea gomendatzen dizuegu. Lizitatzailak helbide elektronikoa aukeratzen badu, jakinarazpenak helbide elektroniko bidez egingo dira. Hala ere, lehentasunezko beste baliabide bat ere aukera daiteke. Ez bada horrela egiten, posta ziurtatu bidez egingo da jakinarazpena, adierazitako helbidera.]*

## **VI. eranskina. Formulak erabilia ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.**

### **A eredua. Loteen araberako proposamena**

*Eskaintza aurkezten den lote bakoitzeko eranskin indibidualizatu bat aurkeztuko da*

[...] jaunak/andreak, [...] helbidea eta [...] NAN zenbakia dituenak, bere izenean, edo [...] helbidea eta [...] NAN edo IFZ dituen [...]ren ordeztu, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzaren Babes Publikoko Etxebizitzaren eraikinak garbitzeko zerbitzua kontratatuzko prozedura ireki bidez lizitazioa ezagututa (... lotea), honen bidez honako hau

### **AITORTZEN DU**

- Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzaren babes publikoko etxebizitza-erakinen garbiketa-zerbitzuen kontratua —... lotea— egikaritzeko konpromisoa hartzen duela ..... euroko aurrekontuarekin (BEZ barne), honela xehatuta:  
  
..... euro (prezioa BEZ kanpo).  
  
..... euro (BEZ).
- Karitularen 23. artikuluan aurreikusitako balizko aldaketen ondorioetarako, eskaintza honako modu honetan xehatzen da:  
..... euro, BEZ kanpo, honela xehatua:  
- Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ..... €, BEZ kanpo  
- Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: .....€, BEZ kanpo
- Esleipendun izango banintz, dagokion kontratu-aldaketa bidez, loteetan adierazi ez diren sustapen berrietarako edo eraikita egon arren zerbitzurik gabe geratzen diren etxebizitzengatik Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak behar dituen premia berrien arabera garbiketa-zerbitzuak egiteko konpromisoa hartzen dut. Zerbitzu hori kontratuan aurreikusitako epean eskainiko dut eta baldintza ekonomiko-administratiboen agiriko 30. artikuluan aurreikusitako moduan.
- Prezioen barruan daude kasuan-kasuan esleitutako lan guztiak, Agiri honetan adierazitakoak, eta gauzatzean sor daitezkeen gastu guztiak, besteak beste: joan-etorrien gastuak, langileen gastuak —derrigortutako langileen subrogazioen ondorioz sor daitezkeen gastuak barne—, administrazio-gastuak, zergak, tasak eta aplikatzekoa den beste edozein gastu.
- Ezagutzen duela kontratua zuzentzen duen kontratuko dokumentazioa, eta berori osorik bere gain hartu eta onartutzat hartzen duela berariaz.

[...](e)n, [...](e)ko [...]aren [...]](e)(a)n  
[Sinadura]

## VI. eranskina. Formulak erabilia ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.

### B eredia. Eskaintza integratzailea

[...] jaunak/andreak, [...] helbidea eta [...] NAN zenbakia dituenak, bere izenean, edo [...] helbidea eta [...] NAN edo IFZ dituen [...]ren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzaren Babes Publikoko Etxebizitzen eraikinak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko prozedura ireki bidez lizitazioa ezagututa (... lotea), honen bidez honako hau

### AITORTZEN DU

1. Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzaren babes publikoko etxebizitzen eraikinen garbiketa-zerbitzuen kontratua —**1. Lotea + 2. Lotea + 3. Lotea + 4. Lotea + 5. Lotea + 6. Lotea + 7. Lotea**— egikaritzeko konpromisoa hartzen duela urteko ..... euroko aurrekontuarekin (BEZ barne), honela xehatuta:

..... euro (prezioa BEZ kanpo).

..... euro (BEZ).

2. Karatularen 23. artikuluan aurreikusitako balizko aldaketen ondorioetarako, eskaintza honako modu honetan xehatzen da:

..... euro, BEZ kanpo, honela xehatua:

- Urteko prezioa etxebizitzen komunitateen arabera: ..... €, BEZ kanpo
- Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: .....€, BEZ kanpo

Loteen arabera honela xehatzen dena:

#### 1. LOTEA:

1. Eskainitako urteko prezioa:

..... euro (BEZ barne), honela xehatuta:

- ..... euro (prezioa BEZ kanpo).
- ..... euro (BEZ).

2. Karatularen 23. artikuluan aurreikusitako balizko aldaketen ondorioetarako, eskaintza honako modu honetan xehatzen da:

..... euro, BEZ kanpo, honela xehatua:

- Urteko prezioa etxebizitzen komunitateen arabera: ..... €, BEZ gabe
- Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: .....€, BEZ gabe

## 2. LOTEA:

1. Eskainitako urteko prezioa:

..... euro (BEZ barne), honela xehatuta:

- ..... euro (prezioa BEZ kanpo).
- ..... euro (BEZ).

2. Karatularen 23. artikuluan aurreikusitako balizko aldaketen ondorioetarako, eskaintza honako modu honetan xehatzen da:

..... euro, BEZ kanpo, honela xehatua:

- Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ..... €, BEZ kanpo
- Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: .....€, BEZ gabe

## 3. LOTEA:

1. Eskainitako urteko prezioa:

..... euro (BEZ barne), honela xehatuta:

- ..... euro (prezioa BEZ kanpo).
- ..... euro (BEZ).

2. Karatularen 23. artikuluan aurreikusitako balizko aldaketen ondorioetarako, eskaintza honako modu honetan xehatzen da:

..... euro, BEZ kanpo, honela xehatua:

- Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ..... €, BEZ kanpo
- Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: .....€, BEZ kanpo

## 4. LOTEA:

1. Eskainitako urteko prezioa:

..... euro (BEZ barne), honela xehatuta:

- ..... euro (prezioa BEZ kanpo).
- ..... euro (BEZ).

2. Karatularen 23. artikuluan aurreikusitako balizko aldaketen ondorioetarako, eskaintza honako modu honetan xehatzen da:

..... euro, BEZ kanpo, honela xehatua:

- Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ..... €, BEZ kanpo
- Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: .....€, BEZ kanpo

## 5. LOTEA:

1. Eskaintako urteko prezioa:

..... euro (BEZ barne), honela xehatuta:

- ..... euro (prezioa BEZ kanpo).
- ..... euro (BEZ).

3. Karatularen 23. artikuluan aurreikusitako balizko aldaketen ondorioetarako, eskaintza honako modu honetan xehatzen da:

..... euro, BEZ kanpo, honela xehatua:

- Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ..... €, BEZ kanpo
- Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: .....€, BEZ kanpo

## 6. LOTEA:

1. Eskaintako urteko prezioa:

..... euro (BEZ barne), honela xehatuta:

- ..... euro (prezioa BEZ kanpo).
- ..... euro (BEZ).

2. Karatularen 23. artikuluan aurreikusitako balizko aldaketen ondorioetarako, eskaintza honako modu honetan xehatzen da:

..... euro, BEZ kanpo, honela xehatua:

- Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ..... €, BEZ kanpo
- Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: .....€, BEZ kanpo

## 7. LOTEA:

1. Eskainitako urteko prezioa:

..... euro (BEZ barne), honela xehatuta:

- ..... euro (prezioa BEZ kanpo).
- ..... euro (BEZ).

2. Karatularen 23. artikuluan aurreikusitako balizko aldaketen ondorioetarako, eskaintza honako modu honetan xehatzen da:

- ..... euro, BEZ kanpo, honela xehatua:
- Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ... €, BEZ kanpo
  - Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: ... €, BEZ kanpo

3. Esleipendun izango banintz, dagokion kontratu-aldaketa bidez, loteetan adierazi ez diren sustapen berrietarako edo eraikita egon arren zerbitzurik gabe geratzen diren etxebizitzengatik Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak behar dituen premia berrien arabera garbiketa-zerbitzuak egiteko konpromisoa hartzen dut. Zerbitzu hori kontratuan aurreikusitako epean eskainiko dut eta baldintza ekonomiko-administratiboen agiriko 30. artikuluan aurreikusitako moduan.

4. Prezioen barruan daude kasuan-kasuan esleitutako lan guztiak, Agiri honetan adierazitakoak, eta gauzatzean sor daitezkeen gastu guztiak, besteak beste: joan-etorrien gastuak, langileen gastuak —derrigortutako langileen subrogazioen ondorioz sor daitezkeen gastuak barne—, administrazio-gastuak, zergak, tasak eta aplikatzekoa den beste edozein gastu.

5. Ezagutzen duela kontratua zuzentzen duen kontratuko dokumentazioa, eta berori osorik bere gain hartu eta onartutzat hartzen duela berariaz.

[...](e)n, [...](e)ko [...](e)aren [...](e)(a)n  
[Sinadura]

**VII. eranskina. Langileen kontratuei baldintzei buruzko informazioa**

LANGILEAK	LANTOKIA	ASTEKO ORDUAK	ANTZINATASUN-DATA	KONTRATUAREN KODEA	KATEGORIA
1	Oriamendi pasealekua, 18	1	2013/07/15	289	GARB.
1	Oriamendi pasealekua 20	1	2013/07/15	289	GARB.
1	Andoain kalea, 46	2	2013/07/15	289	GARB.
1	Mons pasealekua, 5	3	2013/07/15	289	GARB.
1	Mons pasealekua, 5 garajeak	0,5	2013/07/15	289	GARB.
1	Mons pasealekua 87	0,5	2013/07/15	289	GARB.
1	M.Dolores Goia Pl. 001 garajea	0,5	2013/07/15	289	GARB.
1	Ignacio Ugarte plaza, 1	3	2013/07/15	289	GARB.
1	Ignacio Ugarte plaza, garajeak	0,5	2013/07/15	289	GARB.
1	Argel pasealekua, 2	2	2013/07/15	289	GARB.
1	Argel pasealekua, garajeak	0,5	2013/07/15	289	GARB.
2	Serapio Mujica, 13	2,25	2011/12/01	200	GARB.
2	Serapio Mujica, 15	2,25	2011/12/01	200	GARB.
2	Serapio Mujica,, 17	2,25	2011/12/01	200	GARB.
2	Serapio Mujica, 19	2,25	2011/12/01	200	GARB.
2	Serapio Mujica, garajeak	1,5	2012/12/ 01	200	GARB.
3	* Morlans pasealekua, 2	2	2014/02/01	289	GARB.
3	* Morlans pasealekua, 4	2	2014/02/01	289	GARB.
3	* Morlans pasealekua,6	2	2014/02/01	289	GARB.
3	* Morlans pasealekua, 8	2	2014/02/01	289	GARB.
3	* Morlans pasealekua, 10	2	2014/02/01	289	GARB.
3	* Morlans pasealekua, 10 garajeak	0,5	2014/02/01	289	GARB.
4	Nemesio Etxaniz, 1	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Nemesio Etxaniz, 3	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Gabriel Mª Lafitte plaza, 3	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Ander Arcelus plaza, 1	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Ander Arcelus plaza, 2	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Irasmoe, 1	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Felisa Martin Bravo hiribidea, 15	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Felisa Martin Bravo hiribidea, 17	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Felisa Martin Bravo hiribidea, 19	2	2013/10/01	189	GARB.

LANGILEAK	LANTOKIA	ASTEKO ORDUAK	ANTZINATASUN-DATA	KONTRATUAREN KODEA	KATEGORIA
4	Felisa Martin Bravo hiribidea, 21	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Añarbe plaza, 1	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Añarbe plaza, 2	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Añarbe plaza, 2 garajeak	0,5	2013/10/01	189	GARB.
4	Julio Maeso, 2	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Julio Maeso, 4	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Julio Maeso, 6	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Julio Maeso, 8	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Saturio Burutaran	2	2013/10/01	189	GARB.
5	Marañon doktorea pasealekua, 22	4,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Marañon doktorea pasealekua, garajea	0,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Illarra bidea, 10	2	2018/09/05	289	GARB.
5	Illarra bidea, 12	2	2018/09/05	289	GARB.
5	Illarra bidea, garajeak	0,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Goiko Galtzada Berri, 8	1,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Goiko Galtzada Berri, 10	1,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Goiko Galtzada Berri, 12	1,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Goiko Galtzada Berri, 14	1,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Goiko Galtzada Berri, garajeak	0,5	2018/09/05	289	GARB.
6	Berrabehea, 4	2	2010/05/06	289	GARB.
6	Berrabehea, 6	2	2010/05/06	289	GARB.
6	Casares pasealekua, 9	2	2010/05/06	289	GARB.
6	Casares pasealekua, 11	2	2010/05/06	289	GARB.
6	Casares pasealekua, garajeak	0,5	2010/05/06	289	GARB.
7	Berrabehea, 5	2	2006/06/09	289	GARB.
7	Berrabehea, 7	2	2006/06/09	289	GARB.
7	Berrabehea, 9	2	2006/06/09	289	GARB.
7	Berrabehea, 11	2	2006/06/09	289	GARB.
7	Berrabehea 13	2	2006/06/09	289	GARB.
7	Berrabehea, 15	2	2006/06/09	289	GARB.
8	Orkolaga aita pasealekua, 14	1,5	2005/03/01	289	GARB.
8	Orkolaga aita pasealekua, 16	1,5	2005/03/01	289	GARB.



LANGILEAK	LANTOKIA	ASTEKO ORDUAK	ANTZINATASUN-DATA	KONTRATUAREN KODEA	KATEGORIA
9	Lasarte plaza	1,25	2014/01/13	289	GARB.
9	Lasarte plaza	1,25	2014/01/13	289	GARB.
9	Lasarte plaza	1,25	2014/01/13	289	GARB.
9	Lasarte plaza	1,25	2014/01/13	289	GARB.
9	Lasarte plaza	1,25	2014/01/13	289	GARB.
9	Lasarte plaza	1,25	2014/01/13	289	GARB.
9	Lasarte plaza, garajeak	0,5	2014/01/13	289	GARB.
10	Pinu bidea, 27	3,75	2014/07/05	200	GARB.
10	Pinu bidea, garajeak	0,5	2014/07/05	200	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 1	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 2	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 3	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 4	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 5	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 6	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 7	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 7 garajeak	1	2014/12/01	289	GARB.
11	Katalina Eleizegi, 19	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Katalina Eleizegi, 21	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Katalina Eleizegi, 23	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Katalina Eleizegi, 25	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Katalina Eleizegi, garajeak	0,5	2014/12/01	289	GARB.
11	Hiru- Damatxo plaza, 9	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Hiru- Damatxo plaza, 10	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Hiru- Damatxo plaza, garajeak	0,5	2014/12/01	289	GARB.
11	Harrobieta plaza, 7	2,5	2014/12/01	289	GARB.
11	Harrobieta plaza, 8	2,5	2014/12/01	289	GARB.
11	Harrobieta plaza, 9	2,5	2014/12/01	289	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 8	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 9	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 10	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 11	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 12	2	2019/05/22	501	GARB.

LANGILEAK	LANTOKIA	ASTEKO ORDUAK	ANTZINATASUN- DATA	KONTRATUAREN KODEA	KATEGORIA
12	Bascongada pasealekua, 13	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 14	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 14 garajeak	1	2014/05/22	501	GARB.
12	Benta Berri plaza, 6	5,5	2019/05/22	501	GARB.
12	Morlans pasealekua, 3	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Morlans pasealekua, 5	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Morlans pasealekua, 7	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Morlans pasealekua, 9	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Morlans pasealekua, 11	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Morlans pasealekua, 011 garajeak	0,5	2019/05/22	501	GARB.
13	Garaje guztiak	17	2009/10/02	200	GIDARIAK
14	Kristalak eta kristalizatuak	11	2009/10/02	200	PEOI BER.
* Gaur egun 1. langileak ordezkatzeko du titularrak liberazio sindikala duelako					